

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	DISTANTZIA LUZEKO GARRAIOA	Iraupena	90
Kodea	MF1013_3		
Lanbide-arloa	Merkataritza eta Marketina.		
Lanbide-eremua	Merkataritza-logistika eta garraioaren kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Garraioaren eta banaketaren antolamendua	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Banaketa kapilarra.	Iraupena	70
	Logistika-katearen optimizazioa (zeharkakoa)		90
	Ingeles profesionala nazioarteko logistika eta garraiorako (zeharkakoa)		90
	Garraioaren antolamendu eta banaketako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1013\_3: Distantzia luzeko garraioko operazioak antolatu, kudeatu eta kontrolatzea.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bideen eta garraio-moduen konbinazio ezberdinak aztertzea, nazioarteko operazio-mota desberdinak kontuan hartuta.

EI1.1 Salgaien nazioarteko garraio-operazio baten oinarritzko ezaugarriak eta elementu bereizgarriak deskribatzea, barruko garraio-operazio batekin eta banaketa-garraio batekin konparatuz.

EI1.2 Nazioarteko garraiorako bideak planifikatzeko erabiltzen den datu-base batek izan behar dituen elementuak azaltzea, ondoko hauei buruz kontuan izan beharreko aldagaiak ezarritik:

- Garraio-azpiegituren sarea: aireportuak, portuak eta lehorreko portuak.
- Logistika-azpiegitura erabilgarriaren sarea: eskumendeko bezeroak, korrespontsalak, ordezkariak eta/edo salgaiak bateratzeko erabil daitezkeen biltegiak.
- Jatorriko eta helburuko puntuak non dauden zehaztea, ibilgailuaren edo garraio-motaren aldaketa eta iragaitea (portuak eta aireportuak).
- Hornitzaileak eta garraiolariak identifikatzea.
- Nazioartean eskuragarri dauden aduana-agente, garraio-kudeatzaile, jasotzaile eta ordezkariak.

EI1.3 Behar bezala zehaztuta dauden Europa barruko zein kontinente arteko bi garraio-operaziotatik abiatuta, bide-aukera ezberdinak aztertzea, bakoitzari dagozkion garraio-modu ezberdinak eta horien kostuak eta baldintzatzaileak konparatuz.

EI1.4 Garraio-modu ezberdinen (airekoa, errepidekoa, trenbidekoa, itsasokoa, ibalkoa, etab.) ezaugarriak, abantailak eta eragozpenak konparatzea.

EI1.5 Behar bezala zehaztutako kasu batean oinarrituz, garraio-modu ezberdinak erabiltzeagatik sortutako marruskadura-denborak kalkulatzeko.

A2: Nazioarteko garraio-operazio intermodalaren kostua kalkulatzeko, dagozkion teknikak eta tarifak aplikatuz.

EI2.1 Behar bezala zehaztutako operazio batean oinarrituz, operazioari lotutako zuzeneko kostuak zerrendatzea.

EI2.2 Garraio-operazio konbinatu batean oinarrituta (errepidekoa-trenbidekoa, errepidekoa-itsasokoa, errepidekoa-airekoa), merkatuan eskuragarri dauden hornitzaileen tarifak identifikatzea eta konbinazio ezberdinen kostua balioztatzea.

EI2.3 Aurreikusi gabeko kostuak izateko aukera ematen duten egoerak azaltzea eta zehaztutako operazioen zuzenketak zehaztea, emandako tarifak zuzentzeko, garraiolariari ordaintzeko eta bezeroari jasanarazteko.

EI2.4 Salgaien garraio-modalitate bakoitzarentzat behar bezala zehaztutako kasuetan oinarrituz, dagozkien kostuen egitura zehaztea:

- Linea erregularreko itsas garraioarentzat, itsasontzian garraiatzearen kostua edo pleita eta itsasoratzearen aurreko eta osteko gastuak bereiziz.
- Errepide bidezko garraioarentzat, aplikatu beharreko tarifaren kalkulua eginez.
- Trenbide bidezko garraioarentzat, aplikatu beharreko tarifaren arabera.
- Aireko garraioarentzat, zerbitzuaren ezaugarrien arabera: ibilbidea, pisua, bolumena, bateratutako karga, salgai espezifikoak, etab.
- Garraio multimodalarentzat (trenbidea, errepidea eta edukiontzia), lotutako kostuen osagarriak zehaztuz: marruskadura, zamalanak eta manipulazioa.

EI2.5 Behar bezala zehaztutako garraioetan (itsasokoa, errepidekoa, trenbidekoa, airekoa eta multimodala) oinarrituz, distantzia luzeko garraio-modu ezberdinak kontratatze-kanal egokiena zehaztea, tarifak eta zerbitzuaren kalitatea konparatuz.

EI2.6 Garraio-kudeatzaileek distantzia luzeko salgaien garraioan, eta, bereziki, nazioartekoan, jokatzen duten papera azaltzea, gaur eguneko egoera eta etorkizuneko aukerak aztertuz.

EI2.7 Nazioarteko garraio-operazio batean oinarrituz, Nazioarteko Merkataritza Ganberak (INCOTERMS) onartutako baldintzetan garraioak duen inplikazioa interpretatzea.

A3: Nazioarteko operazioetan edo operazio multimodaletan salgaien segurtasuna bermatzen duten elementuak aztertzea.

EI3.1 Indarrean den eta garraioari aplikatu beharreko araudia eta legedia zuzen interpretatzea, produktu-motaren arabera: salgai arrisksuak, salgai galkorrak, bolumen handiko salgaiak edo animalia biziak.

EI3.2 Nazioarteko edo distantzia luzeko garraioko salgaien hondatze-egoera ohikoenak aztertzea.

EI3.3 Garraio-baliabide bakoitzean fisikoki babesteko erabili ohi diren ekipoak eta elementu-motak identifikatzea, horietako bakoitzaren ezaugarriak azalduz, baita garraio-baliabide bakoitzerako dakartzen abantailak eta eragozpenak.

EI3.4 Salgaietan ikusgai egon behar diren datuak eta seinaleztapenak azaltzea, indarrean den araudia identifikatuz eta interpretatuz, baita salgaien seinaleztapena eta errotulazioa normalizatzeko gomendioak ere.

EI3.5 Salgaiak taldekatzean eta edukiontzietan jartzean agertzen diren arrisku ohikoenak eta horiek saihesteko edo zuzentzeko formulak azaltzea, salgaiak bateratzeko eta bereizteko prozesua errazteko.

EI3.6 Ezaugarri batzuetatik abiatuta (salgai-mota ezberdinak, ibilgailu-aldaketa edo garraio-motaren aldaketa duen bidea, tarteko deskarga partzialak, karga-unitate zehaztuak), salgaiak edukiontzian edo karga-unitatean jartzeko irizpideak azaltzea, espazioak banatzeko dagokion aplikazio informatikoa erabiliz, hala behar izanez gero.

EI3.7 Salgaiak juridikoki babesteko sistemak, garraio-aseguruak, salgaien aseguruak eta salgaiak hondatu edo desagertuz gero agentei kalte-ordain ekonomikoa emateko formulak azaltzea.

A4: Garraio multimodalaren operazioetarako behar diren dokumentuak kudeatzea.

EI4.1 Garraio-modu bakoitzari barne-merkatuan zein nazioartean aplikatu beharreko esparru juridikoa identifikatzea.

EI4.2 Behar bezala zehaztutako kasu batean oinarrituz, non garraiolariaren erantzukizuna zehazteko beharra proposatzen den, ondoko hauek bereiztea, garraio-moduaren arabera:

- Salgaien bidalketa-baldintzak erregulatzen dituen araudia.

- Dagokion araudia aplikatuz hartu beharreko jarrera egokiena.

EI4.3 Salgai berezien garraioen eskakizunak eta esparru juridikoa aztertzea, garraio-moduaren arabera:

- Salgai arrisksuak, horiei buruz ezarritako sailkapena zerrendatuz.

- Salgai galkorrak, tenperatura, hezetasuna eta abar kontrolatzeko kondizioak identifikatuz.

- Animalia biziak, faktore biologikoak eta portaerari dagozkionak identifikatuz.

- Salgaiak taldekatzeko erregimena, garraio-mota horren ohiko jokabidearen eskema identifikatuz.

EI4.4 Salgaien distantzia luzeko garraioarekin lotutako hornitzaile eta erakunde nagusiak bilatzea, Internet sareko informazio- eta komunikazio-sistemak erabiliz.

A5: Distantzia luzeko garraio-zerbitzuan sor daitezkeen gertakari ohikoenak eta horiek konpontzeko prozedurak aztertzea.

EI5.1 Salgaien distantzia luzeko garraio-operazioetan gertakariak sorraraz ditzaketen faktoreak azaltzea, prozesuaren jarduerak edo operazioak aztertuz: salgaien prestaketa, bilgarria, karga, zamalanak, garraioa, aldaketak, iragaiteak, deskarga, entrega, jasotzea eta abar.

EI5.2 Erabilitako garraio-mota kontuan hartuta, ondoko hauek azaltzea: sor daitezkeen gertakari-motak, non gerta daitezkeen, nori egotz dakiokkeen eta zein izan daitezkeen irtenbidea.

EI5.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, non gertakari bat sortu den garraioan, zehaztea nola jokatu behar den, nori jakinarazi behar zaion eta zer neurri hartu diren horrelako gertakariak etorkizunean berriro jazo ez daitezkeen.

EI5.4 Distantzia luzeko garraio-zerbitzuan gertakariak kontrolatzeko sistema bat ezartzeko aztertu beharreko elementuak zehaztea, ondoko alderdi hauek kontuan hartuta: gertakari-mota, bezeroa, garraiolaria, produktua eta abar.

EI5.5 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, non ezbehar bat gertatu den garraio-zerbitzuan, garraio-moduaren arabera ohikoenak diren aseguru-polizen motak zehaztea, horietako bakoitzean erantsi ohi diren klausulen estaldurak azalduz eta sar daitezkeen klausula osagarri batzuk aipatuz.

EI5.6 Nazioarteko merkataritza-operazio baten definiziotik abiatuz:

- Garraioaren eta operazio lagungarrien arriskuak identifikatzea.

- Aseguru-polizaren klausula-multzo posiblea ondorioztatzea.

- Asegurua kontratatzekeo prozedura deskribatzea.

EI5.7 Behar bezala zehaztutako nazioarteko merkataritza-operazio bati buruzko bi aseguru-polizatan oinarrituta, non klausula-multzoan jasotakoaren arabera estaldura ezberdina duten alderdi zehatz batean eta prima ezberdina ere baduten:

- Poliza bakoitzaren kasuan, klausula-multzoa interpretatzea eta estaldurari buruzko ondorioak ateratzea.

- Ondorioztatzea zein den operaziorako egokiena, poliza bakoitzaren parametro guztiak baloratuz.

EI5.8 Nazioarteko iragaite-operazio batean sortutako eta aseguru-polizak estaltzen ez dituen gertakari batzuetan oinarrituz:

- Aplikatu beharreko araudia identifikatzea eta interpretatzea.

- Gertakari horren irtenbidea kudeatzeko behar diren dokumentuak identifikatzea.

- Irtenbiderik egokiena ondorioztatzea eta jarraitu beharreko prozedura azaltzea.

A6: Kudeaketarako, informaziorako eta komunikaziorako beharrezkoak diren sistema informatikoak zuzen erabiltzea, informazio-fluxu egokia bermatzeko.

EI6.1 Salgaien banaketaren sektorean telematikak dituen erabilera nagusiak zuzen azaltzea.

EI6.2 Garraio-operazioen kasu praktiko batean, komunikazio-tresnak, Internet eta/edo posta elektronikoa erabiltzea informazioa eskuratzeko eta bidaltzeko.

EI6.3 Erlazionatzea sektoreko ohiko komunikazio-sistema nagusiak eta satellite bidezko konexioa dutenak eta horiek garraio-zerbitzuan izan dezaketen erabilera.

EI6.4 Kasu praktiko batean oinarrituta, non posta elektronikoaren eta faxaren bidez informazioa bidali eta jasotzen den:

- Informazioaren edukia eta jasotzaileak identifikatzea.
- Informazioa parte-hartzaile eta solaskide guztiei egoki bideratzea.
- Jasotze-egiaztagiriak edo -ziurtagiriak artxibatzea.
- Faxaren edo posta elektronikoaren bidez informazioa bidaltzea.
- Bidalitakoa jaso dela ziurtatzea, dagokien txostenen bidez.

EI6.5 Satellite bidezko komunikazioen bidez flota lokalizatzeko eta haren segimendua egiteko sektorean erabiltzen diren sistemak zehaztea, haien erabilgarritasuna azalduz.

EI6.6 EDI bidezko informazio-trukerako sistemak erabiltzea, erabiltzailearen mailarekin, honako hauekiko komunikazioetan: bezeroak, hornitzaileak, beste zentro batzuk, administrazio publikoak, etab.

## Edukiak

### 1. Distantzia luzeko garraio-zerbitzuen azterketa eta ezaugarriak

- Nazioarteko garraioaren berezitasunak:
  - Nazioarteko garraioaren kontzeptua eta antolamendua: Europa barrukoa eta beste herrialde batzuekikoa.
  - Garraio-zerbitzua nazioarteko merkataritza-operazioetan: nazioarteko salerosketa-operazioen klausula-multzo espezifikoak. Jarduteko erari eta operazio-kostuei buruzko INCOTERMS arauen azterketa.
  - Logistika eta garraioa nazioarteko merkataritzaren zerbitzura: garraio azkarrak, "just in time" eta garraio multimodala, unimodala eta konbinatua.
- Nazioarteko garraioaren operadore espezifikoak:
  - Aduana-agenteak.
  - Garraio-kudeatzaileak.
  - Itsas agenteak.
  - Aireko agenteak.
  - Beste logistika-operadore batzuk.
- Nazioarteko garraioaren esparru juridikoa
  - Nazioarteko garraioaren arau-testuingurua.
  - Nazioarteko hitzarmenak: lurrekia, airekoa eta itsasokoa.

### 2. Garraio intermodalaren jardunbidea

- Garraio-moduak eta haien ezaugarriak: errepidekoa, trenbidekoa, itsasokoa, ibaikoa, airekoa, multimodala.
- Garraio-moduaren konparatiboa, ondoko hauen arabera: azkartasuna, edukiera, segurtasuna, kostua eta salgai-mota.
- Garraioaren alderdi teknikoak: ibilgailuak eta mugak. Arrunta.
- Berezia: salgai arriskutsuak, salgai galkorrak, animalia biziak, salgaiak taldekatzea.
- Garraio-moduak aukeratzeko irizpideak.
- Beste logistika-baliabide batzuk aukeratzeko irizpideak (bilgarria, biltegitratzea, manipulazioa, aduana-izapideak, aseguruak).
- Garraioa modu ezberdinen merkaturatze-ereduak.
- Garraio-modu ezberdinen araudi erregulatzailerak.

### 3. Distantzia luzeko garraioko operazioen plangintza

- Nazioarteko garraioan kargak planifikatzeko eta banatzeko metodoak.
- Europako eta nazioarteko garraio-sareak eta -azpiegiturak.
- Plataforma intermodalak.
- Bideen eta garraio-modu(ar)en plangintza eta hautaketa.
- Nazioarteko garraio-operazioen kostuak.
  - Kostuen egitura, garraio-moduaren arabera.
  - Kostu finko eta aldakorak. Aurreikusi gabeko kostuak. **Denboraren, kostuaren eta salgaien segurtasunaren optimizazioa.**
- Tarifak eta prezioak, garraio-moduaren arabera. Nazioarteko garraio-zerbitzuen plangintzari buruzko INCOTERMS arauen interpretazioa.

#### 4. Nazioarteko garraio-operazioen oinarrizko dokumentuen kudeaketa

- Salgaien berariazko dokumentuak esportazioaren eta inportazioaren alorrean.
- Garraioaren dokumentuak, moduaren arabera: Garraio konbinatuko FIATA ontziratze-agiria (CTBL "bill of landing"), Itsas garraioko ontziratze-agiria (B/L), Aireko ontziratze-agiria (AWB edo HAWB eta Master AWB), Errepide bidezko garraioko gutuna (CMR), Trenbide bidezko garraioko gutuna (CIM), Beste batzuk.
- Salgaien babes juridikoaren dokumentazioa:
  - Salgaien eta garraioaren aseguruak.
  - Lurreko, itsasoko eta aireko garraioaren aseguruak.
  - Ezbeharren likidazioa: jardunbidea eta aseguru-polizaren kudeaketa.
- Salgaien iragaitearen dokumentazioa: T1, T2, T2L, T5, Kargaren zerrendak, TIR koadernoak, ATA koadernoak, Zerga berezien eraginpean dauden produktuekin batera eraman beharreko dokumentu administratiboa, Zerga berezien eraginpean dauden produktuen joan-etorrien gida, Salgai arriskutsuen fitxak eta ziurtagiriak, Osasun-ziurtagiriak, Beste batzuk...)
- Aduanako prozedura administratiboa.

#### 5. Salgaien garraio intermodalaren kontrola eta segurtasuna

- Salgaien segurtasuna garraio intermodalean: Enpresa garraiatzailearen eta parte hartzen duten agenteen eginbeharrak.
- Salgaien babes fisiko eta juridikoa.
- Salgaiak prestatzea: babes fisikoa: ontziak eta bilgarriak.
- Ontzien eta bilgarrien normalizazioa, egiaztapena eta homologazioa.
- Bilgarriak aukeratzeko irizpideak, garraio-moduaren arabera.
- Karga- eta garraio-unitateak: paletetan antolatzea eta edukiontzietan jartzea.
- Salgaiak manipulatzeko eta kargatzea.
- Salgaiak etiketatzea eta seinalezatzea.
- Bilgarriak elektronikoki identifikatzea.
- Ezaugarri espezifikoak dituen garraioa: salgai arriskutsuak, salgai galkorrak, animalia biziak, etab.
- Salgaiak kargatzean aplikazio informatikoak erabiltzea espazioa banatzeko.
- Gertakariak edo ezbeharra kudeatzea nazioarteko garraio intermodalean.
  - Kontzeptua eta moduen arteko ezberdintasunak.
  - Gertakari-motak.
  - Gertakariak eragiten dituzten faktoreak.
  - Kanpoko eta barruko konponbideak.
  - Kontrol-egoerak.
- Ezbeharren arreta: komunikazioa, dokumentuak ematea, kalteak erreklamatzeko.
- Neurri zuzentzaileak.

#### 6. Aplikazio informatikoak salgaien nazioarteko garraio-operazioetako kudeaketa, informazio, komunikazio eta kontrolerako

- Salgaien ibilbideari eta egoerari buruzko segimendu, erregistro, komunikazio eta informaziorako aplikazioak: posta elektronikoa, Internet, EDI informazio-sistema, GPSa, etab.
- Nazioarteko garraio-zerbitzuari buruzko datu-baseak elikatzea eta haien mantentze-lanak.
- Bezeroekiko informazio- eta komunikazio-sistemak: webgunea, posta elektronikoa, faxa.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urte baino gehiagokoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Garraioaren eta banaketaren antolamendua